


Test galderak

## LEHENENGO TESTA



1. Zer ahalbidetzen die legeriak subjektu juridikoei?
  - a. Ondorio juridikoekin jardun ahal izatea.
  - b. Ondasunen jabe izatea.
  - c. Modu duinean bizi ahal izateko baliabideak izatea.
  - d. Norbere ekintzen erantzule izatea.
2. Zein dira subjektu juridikoak?
  - a. Zu zeu
  - b. Euskal Herriko Unibertsitatea
  - c. Ikasgela honetako ikasle multzoa
  - d. Kafe makina
3. Gutako bakoitza (zu zeu, adibidez) zer da?
  - a. Pertsona juridikoa
  - b. Pertsona fisikoa
  - c. Subjektu juridikoa
  - d. Horietako ezer ez
4. EITB zer da?
  - a. Pertsona juridikoa
  - b. Pertsona fisikoa
  - c. Subjektu juridikoa
  - d. Horietako ezer ez
5. Zein motatakoak dira pertsona fisikoen erabaki organu nagusiak?
  - a. Asanblearioak eta exekutiboak
  - b. Estrategikoak eta taktikoak
  - c. Ez du erabaki organorik, norberak hartzen ditu erabakiak
6. Pertsona juridikoen erabaki organo asanblearioak eta exekutiboak dituztela irakurri berri dugu. Zer da EITBko Administrazio Kontseilua?
  - a. Organo asanblearioa
  - b. Organo exekutiboa
  - c. Asanbleario eta exekutiboa, aldi berean
  - d. Ez bata eta ez bestea
7. Zer da Berria Taldearen (EKTSA) akzionisten batzarra?
  - a. Organo asanblearioa
  - b. Organo exekutiboa
  - c. Ez bata eta ez bestea
8. EKTSAren akzionisten batzarra organo asanblearioa da eta administrazio kontseilua organo exekutiboa. Zein da zeinen menpekoa?

- a. Akzionisten batzarraren menpekoea da administrazio kontseilua
  - b. Administrazio kontseiluaren menpekoea da akzionisten batzarra
  - c. Biak maila berean daude, bakoitzaak bere funtzio propioa duen arren
9. Pertsona juridiko batek (Atresmediak, adibidez) legearen aurkako ekintza bat egiten badu...
- a. ...pertsona juridikoak berak (Atresmedia enpresak) jasan beharko ditu ondorio penalak, ez bere arduradun diren pertsona fisikoek.
  - b. ...pertsona juridikoek ez dutenez erantzunkizun penalik, bere arduradun diren pertsona fisikoek erantzun beharko dute legearen aurrean (eta erantzunkizun penalak jasan)
  - c. ...ez da ezer gertatzen, pertsona juridikoek ez dutenez erantzunkizun penalik
10. Pertsona juridiko batek (Vocentok, adibidez) iruzurra egiten badu Ogasunean dagozkion baino zerga gutxiago ordainduz...
- a. ...Vocentok arduradun diren pertsona fisikoek beren ondasun pertsonalekin erantzun beharko diote zorrari, pertsona juridikoak erantzunkizun penalik ez duenez
  - b. ...Vocento enpresak berak erantzun beharko die zorrari eta zigor ekonomikoari, pertsona juridikoek erantzunkizun zibila dutenez.

## BIGARREN TESTA

1. Sortu ahal izateko ez du hasierako ondarerik behar.
  - a. Elkarateak
  - b. Fundazioak
  - c. Elkarateak eta fundazioak
  - d. Ez bata ez besteak, biek behar baitute hasierako kapitala
2. Sortu ahal izateko gutxienez hiru pertsona behar ditu.
  - a. Elkarateak.
  - b. Fundazioak.
  - c. Biek.
  - d. Ez bata ez besteak pertsona bakarra nahikoa baita bi kasuetan.
3. Elkartea sortu ahal izateko hiru pertsona behar dira, gutxienez, eta gainera...
  - a. ... pertsona fisikoak izan behar dute, ez pertsona juridikoak.
  - b. ... pertsona juridikoak izan behar dute, ez pertsona fisikoak.
  - c. ... pertsona juridikoak edo fisikoak izan daitezke.
4. Organo erabakitzailea Patronatua du.
  - a. Elkarateak.
  - b. Fundazioak.
  - c. Bai elkarateak eta bai fundazioak.
  - d. Ez bata eta ez besteak.

5. Elkarteak eta fundazioak etekin asmorik gabeko entitateak direnez...
  - a. ... diru etekinik ezin dute banatu bazkideen artean.
  - b. ... ezin dute merkataritza jardueren bidez dirurik irabazi.
  - c. ... ezin dute urte bukaerako diru kontuetan balantze positiborik eduki.
  - d. ... ez dute zergarik ordaintzen.
  
6. Hedabide askoren jabeak etekin asmorik gabeko elkarteak dira; bereziki...
  - a. ... talde mediatiko handien jabeak, adibidez Vocento eta Prisa.
  - b. ... hedabide publikoen jabeak, adibidez La1 eta Euskadi Irratia.
  - c. ... tokiko hedabide txikien jabeak, adibidez Eta Kitto! aldizkaria eta Hala Bedi Irratia.
  - d. ... hedabide digital berrien jabeak, adibidez eldiario.es eta ctxt.es
  
7. Bazkide guztiek pisu bera al dute elkarte baten erabakigune nagusian, hau da, bazkideen batzarrean?
  - a. Ez. Norbere akzio kopuruaren araberako erabaki ahalmena du bakoitzak eta, beraz, akzionista nagusiak du erabakimen handiena.
  - b. Bai. Printzipio demokratikoaren arabera hartzen dira erabakiak: bazkide bat, boto bat.
  - c. Ez. Zuzendaritza batzordeko kideek pisu handiagoa dute, eta zuzendaritza batzordeko lehendakariak du azken hitza
  
8. Zein elkarte edo fundazio da hedabide hauen jabea? (HAU EZ DA JAKIN BEHAR)
  - a. Urumeako Kronika → Dobera Euskara Elkarte
  - b. Hegats aldizkaria → Euskal Idazleen Elkarte
  - c. Txintxarri (Lasarte Oria) → Ttakun Kultur Elkarte
  - d. Xorroxin Irratia (Nafarroako Mendialdea) → Ttipi-Ttapa Fundazioa
  - e. Baleixe Irratia (Sakana) → Guaixe Fundazioa
  - f. Geuria (Hego Uribe) → Ameba Kultur Elkarte

## HIRUGARREN TESTA

1. Zertan dira ezberdinak sozietate anonimoak eta sozietate mugatuak?
  - a. SAK irabazi asmoko sozietateak dira; SLak irabazi asmorik gabekoak.
  - b. SAK nahi beste bazkide izan ditzake; SLak mugatua du bazkide kopurua.
  - c. SAK akzioen salerosketa librea ahalbidetzen du; SLren partaidetzen salerosketak muga handiagoak ditu.
  
2. Zenbat akzionista behar dira sozietate anonimo bat sortzeko?
  - a. Bakarra nahikoa da.
  - b. Hiru, gutxienez.
  - c. Ez da derrigorrezkoa akzionistarik izatea, nahikoa kapital baldin badago.
  
3. Helbide soziala Basaurik izango duen sozietate mugatu bat sortu nahi badut, non inskribatu behar dut?
  - a. Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza Erregistroan.

- b. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan.
  - c. Basauriko Merkataritza Erregistroan.
  - d. Espainiako Merkataritza Erregistroan.
4. 60.000 euroko hasierako kapitalarekin sortu nahi dut enpresa berri bat. Kapital horrekin, zer forma juridiko eman behar diot enpresari?
- a. Sozietate anonimoa.
  - b. Sozietate mugatua.
  - c. Kooperatiba.
  - d. Sozietate anonimoaren edo sozietate mugatuaren artean aukera dezaket.
  - e. SAren, SLren eta kooperatibaren artean aukera dezaket.
5. Sozietate anonimo bat sortu nahi badut, zer agiritan zehaztu behar dut, izen-abizenekin, nor garen bazkide (akzionista) fundatzaileak?
- a. Estatutuetan.
  - b. Eratze eskrituran.
  - c. Ez dago inon zehaztu beharrik.
6. Euskarazko Komunikazio Taldea SAren erabaki organo gorena zein da?
- a. Akzionisten batzarra.
  - b. Administrazio Kontseilua.
  - c. Kontseilu Editoriala.
7. Berria Taldearen enpresaren (EKTSA) jabetza egituraren ezaugarri esanguratsua da honako hau:
- a. Langileek jabetzaren %51 kontrolatzen dute.
  - b. Langileena da enpresaren jabetza osoa.
  - c. Enpresa pribatua izanik, administrazio publikoak jabetzaren %25a du, diru-laguntzak ematen dituenez.
  - d. Inork ezin du eduki akzioen %1,2 baino gehiago.
8. Vocento SAren akzionista nagusiek...
- a. ... lotura estua dute finantza munduarekin, besteak beste BBVArekin.
  - b. .... lotura estua dute Atresmedia taldearekin.
  - c. .... lotura estua dute EAJ alderdiarekin.
  - d. ... Noticias Taldearen jabetza ere kontrolatzen dute.
9. El Correo SAU enpresak argitaratzen du El Correo egunkaria. Zer harreman du enpresa horrek Vocento SA enpresarekin?
- a. El Correo SAU da Vocento SAren akzionista nagusia.
  - b. Vocento SA da El Correo SAUren akzionista bakarra.
  - c. Aliantza editoriala dute biek, baina harreman organikorik ez dute.
10. Demagun sozietate anonimo bateko akzionista bakarra naizela eta SAU hori desegin egin dela zor handiak utzita. Ondorioz...
- a. ... zor guztiak kitatu beharko ditut nire ondare pertsonala ere erabilita.
  - b. ... enpresan inbertitu dudana kapitala galduko dut, baina ez ondare pertsonala.
  - c. ... Administrazio Publikoak ordainduko ditu zor guztiak.
11. Zer motatako bazkideak ditu Goienna kooperatibak?
- a. Lan bazkideak.
  - b. Lan bazkideak, bazkide erabiltzaileak eta bazkide laguntzaileak.
  - c. Lan bazkideak eta bazkide irakurleak.
  - d. Ez du bazkiderik, kooperatiba denez.

12. Argia aldizkariaren enpresa (Komunikazio Biziagoa SAL) lan sozietate anonimoa da. Zer esan nahi du horrek jabetza egiturari eta erabaki irizpideei dagokienez?
- a. Langile guztiak akzionistak direla eta lan taldetik kanpoko inork ezin duela akzionista izan.
  - b. Langileek jabetzaren %51 eduki behar dutela gutxienez.
  - c. Funtzionamendu demokratikoa izan behar duela, "bazkide bat = boto bat" printzipioaren araberakoa.